

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

Arabán, Aramaioko udalerrian, Oletan dagoen "Gure aterpea" kultur elkartean sortutako hondakin urak isurtzeko baimena

Espediente-zenbakia: VDP-A-2020-0009

Eskatzailea: "Gure aterpea" kultur elkarteak.

"Gure aterpea" kultur elkarteak eskatu du Aramaioko udalerrian, Oletan daukan egoitza sozialean (9. Poligonoa 449. lursaila) sortutako hondakin urak isurtzeko baimena, ezarriko den arazketa sistema baten bidezkoa. Horretarako dagokion dokumentazioa aurkeztu du.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezzen, hogeita hamar eguneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten Aramaioko udalean edo lurralde-bulego honetan (Forondako Atea 9-11- 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 14a

Mediterraneoko Arroen bulegoburua
JAVIER AGUIRRE ORCAJO